

Bildu eta SNP, bi urrats normalizaziorantz

PSOE-K Bildurekin egin duena ulertzea ez da samurra, eta operazioak ertz ugari izan badezake ere, bi hipotesi nabarmentzen dira gainerako-en artean. Zapateroren Gobernuak bultzatutako Bilduren inpugnazioa medio –gehi errepresioa, kartzela politika...–, pentsa liteke PSOEek ez duela euskal gatazkaren bukaera duinik gura, ez duela euskal gizartearen onerako izango den bake prozesurik bultzatu gura, ez duela prozesu hori 2012ko hauteskundeei begira erabili gura, ETArekin bukatzearena dagoeneko ez dela errentagarria Espainian... Espainian irabazteko Euskal Herrian galdu behar bada, hala egiten dela eta listo. Eta horrela uler-tuko litzateke inpugnazioarena.

Baina pentsa liteke baita ere –PPk egiten duen gisan– jokaldia oso kalkulatua zuela PSOEek, eta parean zituen bide malkartsu denetatik, arinenari heldu diola, bide batez ezker abertzalea estutuz eta PPren eraso-etatik ahalik eta gehien babestuz –“ez naiz ni izan, epaileek erabaki dute”–. Bere helburu nagusia 2012ko Espainiako hauteskunde orokorrak dira, eta hauek irabaztea oso zaila badu ere, orain denbora da edozeren ginetik behar duena; eta jokaldi honek ematen dio hori, batez ere EAJren sostengua bermatzen diolako, eta horrela edozein egoeratan emango zen PPren erasoaldiari erosoago eutsi ahal izango diolako. Ikuspegi hau arriskutsua zen, baina aurrera eginez gero, borobila ere bai: Bilduren partehartzearekin bake prozesua elikatuko luke, Madrilen EAJrekin jarraitu ahalko luke eta EAEn PPrekin gobernuan.

EAJk ere trebezia mugitu ditu hariak, ohi bezala bere burua ondo kokatuz eta euskal gizarteari bere garrantzia ondo salduz. Zapatero



LANDER ARBELATZ

bere menpe zegoela irudikatu du, bere printzipioak bere pragmatismoaren aurretik jartzeko prest zegoela –PSOErekiko ituna apurtuz–; eta, gainera, oposiziotik bada ere EAJ PSE baino gehiago dela beste behin pasa dio sudurren aurretik Lopez lehendakariari.

Eta operazioan, ia gehien irabazi duena Bildu da, aurkeztu ahal izateak suposatzen duen guztiaz gain –eskubideak, bake prozesua...–, hauteskunde kanpainari begira, Gorenaren ezezkoa eta Konstituzionalaren baieztekoarekin, koalizioari egin zekion kanpainarik on eta eraginkorra egin zaiolako. Baina ia gehien irabazi duena euskal gizartea bera baita. Gatazka bortitzaren amaiera eta normalizazio politikoaren hasieraren bigarren ate garrantzitsua zabaldu da; lehena ETAk zabaldu zuen iazko irailean, bere su-eten erabakigarriarekin. Gero eta gehiago, etorkizunari beste aldarte batekin begiratzen dio euskal gizartearen gehiengo zabalak.

BIZITZAKO gai arruntek garrantzia irabaziko dute eztabaida eta lehia politikoaren plazan: neoliberalismoaren krisi ekonomikoari nola erantzun, Pasaiko portua, zaborren kudeaketa, zerga politika, pentsioen eredu, hizkuntza politika, gerraioa... Bazen ordua gatazka eta nazio arazoez

gain, herritarren bitzta baldintzatzen duten gaiek ere dagokien lekua irabazten hasteko. Azken finean, Eskoziako abertzaleen garaipenak ondo erakusten duen moduan, horiek dira soberanismoaren tranpolinik onenak eta horietatik bakarrik hel daiteke bultzatera independentismoa eraginkortasunez.

Krisiari aurre egiteko SNPk Eskoziako instituzio autonomoei eman dien garrantzia giltzarri izan da bere inoizko garaipenik handienarako, baina baita krisi horren aurrean erakutsi duen ikuspegi soziala ere. Eta egungo Euskal Herrian, ikuspegi sozial horri, ezinbestean gehitu behar zaio baita ere ingurumen ikuspegi ere, apurka Lurra eta pertsonak egun gailurrean diren finantzen aurretik jar daitezten. Apurka, independentismoak ere bere bidea egin ahal izan dezan, normaltasunez, herritarrek duten beste aukera bat gehiago moduan. Belgika, Eskozia, Katalunia, Euskal Herria... Europar Batasunean gero eta normalago izan daitekeena da.

JON AGIRRE, Jose Mari Elordui edo Antton Troitiñoren kasuek, dena den, oraindik non gauden erakusten digute. Espainiak “politiko” etiketa kendu nahi die ezinbestean, baina berak kolektibo handi honekin egiten duen erabilera politikoak ematen dio inork baino argiago izaera politikoa kolektiboari. Eta –deitu terroristak edo gudari– izaera politikoa duen gatazka baten ondorio denez, irtenbideak ere politikoa izan behar du. Bada ordua Espainiako Gobernua espetxe politika laxatzen has dadin. ETAk jarraitzen du urratsak ematen –zerga iraultzailearen amaiera– eta jarraitu beharko du gainera, baina, bada ordua Estatuak presoen munduarekiko keinuak ere egin ditzan.